

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko irailaren 11. IX. urtea. 2.414. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Mintzola zuzendari Josune Zabala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari Zigor Etxebarria eta Bertsozale elkarteko Beñat Gaztelumendi. A.I.

Euskalkien eta batuaren arteko aldea, Aho Bete Hots hitzorduan

'Euskalkiak, batua eta erregistroa ahozko kultur sorkuntzan' izenpean egingo dituzte jardunaldiak Villabonako Mintzolan

Azaroaren 7an, 8an eta 9an izango dira eskolak; izena gaurtik urriaren 24a arte eman daiteke Mintzola Fundazioan bertan 5

Gizonezko bat hil da Alegiako geltokian, trenak harrapatuta

Atzo eguerdian izan zen ezbehera eta ondorioz, tren zerbitzua etenda egon zen ordubetez 6



Atzo eguerdian izan zen ezbehera, Alegiako tren geltokian, eta zerbitzua eten behar izan zuten. I. TERRADILLOS

Musika erritmo ugari entzuteko aukera, Berazubiko jaietan

Gaur hasiko dira Tolosako auzoko festak; Barrua Truk eta La Jodedera entzun ahal izango da gauean 2

Jose Enrike Zeberioaren lanak ikusi daitezke Alegian

Erretirodunen taberna bildu dituzte tolosarraren margolanak; akuarela erabiltzen du 4

Ikasle abertzaleek hezkuntza sistema propioa aldarrikatu dute

Tolosaldeko Ikasle Abertzaleak taldeak deituta elkarretaratzea egingo dute, gaur, Tolosan 7

Gaur hasiko da Berastegiko argazki lehiaketa 6

TOLOSALDEKO hitza info
ETA LEITZALDEKO

Hitzaren harpidedunentzat

30 €

Udazken honetan
jan tzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea





Ostiralean, urteroko zezen festa izango da gaztetxoentzat. I. URKIZU

Musika aniztasuna eta mozorro eguna izango dira aurten, Berazubiko jaietan

Gaur hasiko dira jaiak, 19:00etan; Barrua Truk eta La Jodedera musika tadeak ariko dira gauean

Itzea Urkizu Tolosa

Aurten, mozorroz eta kolorez jantziko dira Berazubi auzoko jaiak, biharko mozorro egunarekin. Gaur iluntzeko txupinazoarekin hasi, eta igandera bitarte gastronomiaren, jokoen nahiz musikaren inguruan izango da hamaika jarduera.

Antolatzaileek, egunero-egunero izango den musika eskaintza nabarmendu dute. Horrela, hainbat erregistro eta erritmo entzun ahal izango dira Berazubiko karpako oholtzan.

«Jarrera parte-hartzaileak» bultzatuz, herrian bertan ondo pasatzeko aukera probesteko deia egin dute antolatzaileek.

↓ **Egitaraua**

URRIAK 11, OSTEGUNA

- 19:00. Txupinazoa.
- 19:30. Bertso poteoa.
- 21:00. Bertso afaria.
- 00:00. Kontzertuak: Barrua Truk eta La Jodedera.
- 02:00. Elektroklasik Puntzaka DJ vs Gerrizabal DJ.

URRIAK 12, OSTIRALA

- 09:00. Udal txistulari bandaren diana.
- 14:00. Paella txapelketa eta bazkaria.
- 17:30. Zezentxoak zezen plazan.
- 18:30. Haurrentzako txokolatetea.
- 21:30. Zahagi sagardoa.
- 23:00. Kontzertuak: Triki-sound eta Manillares Iturriaga.
- 02:00. BerazubisGhetto IcePNTZK DJ.

URRIAK 13, LARUNBATA

- 12:30. Tortilla txapelketa eta sagardo ziria.
- 16:00. Mus txapelketa.
- 17:30. Haurrentzako jokoak.
- 18:30. Haurrentzako txokolatetea.
- 22:30. Danborrada.
- 00:00. Disko festa Xabi Dantzalekurekin.
- 03:00. Musika Komertzial Musik DJ Lorontziren eskutik.
- 06:00. Txokolatetea.

URRIAK 14, IGANDEA

- 09:00. Udal txistulari bandaren diana.
- 14:00. Bazkaria: Babarrun jatea.
- 16:30. Toka txapelketa.
- 18:00. Eskujokoak eta akrobaziak Debote Enboteren (Vademekun) eskutik.

Enpresa eta langileak sarean aritzeko saioak IKT astean

Saioak industriguneetara joango den autobusean eta KZ Gunean izango dira aurten ere

I. Urkizu

Datorren astelehenean hasiko dira enpresari eta langileek interneten lan egiteko baliagarriak izango diren ikastaroak, Tolosaldeko IV. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) Astearen barruan.

Lehiberrik laugarrenez antolatu du aurten, teknologia berriak enpresa munduan txertatzeko aseta, Enpresa Digitalarekin elkarlanean, eta urriaren 19ra bitarte, hainbat doako ikastaro eta saio eskainiko dituzte.

Argibideak jaso nahi dituenak, edo izena eman nahi duenak, Tolosaldea Garatzen-eko enpresa sailera jo dezake. Halaber, 943 65 45 01 telefonora dei egin daiteke, eta baita enpresa@tolosaldea.net hebidera idatzi ere.

Goizero-goizero, 09:00etatik 13:00etara bitarte, Euskalteleko autobusa eskualdeko industriguneetan barrena ibiliko da, lantegietako langile eta enpresarietara informatikaren eta teknologia berrien inguruko jardunaldiak eskaintzeko. Horrela beraz, aste-

lehenean, asteazkenean eta ostiralean Usabalgo lantegietan ariko dira; astearte eta ostegunean, berriz, Apatzako industrigunean.

Autobusaren bitartez, marketing joerak, enpresen webguneak kudeatzeko Community Managerrak, interneteko publizitatea, gailu mugikorrek eta ETE nahiz MikroETEn webguneak izango dira jorratuko dituzten gaiak.

Saltoki eta herritarrei

Autobusaz gain, ordea, Tolosan bertan ere izango da ikastarorik.

Batetik, enpresak nahiz saltokiak sare sozialetan eta sareko hainbat ataritan promozionatzeko tailerra izango da astelehenean ostegunera, 14:15etik 16:15era bitarte, KZ Gunean eta Tolosako kaleetan. Ostiralean, berriz, dendariei begirako saioa izango da ordu berean, saltoki elektronikoren bidez bezero gehiago lortzeko.

Azkenik, 18:00etatik 20:00etara honako ikastaroak izango dira, Tolosako Pablo Gorosabel kaleko KZ Gunean, ostegunera bitarte: *Nola kudeatu sarean niri buruz dagoen informazioa?*, *Sare sozialak eta nerabeak*, *Kontsumitzaile-arizuzenduriko komertzio elektronikoa (eskubideak eta betebeharrak)* eta *Lan bila zabilta? Interneti esker aurki zaitzaten lor dezakezu.*

• tolosa@hitza.info

Burgosen lehiatuko da etzi, Tolosako Hodeiertz abesbatza

I. Urkizu

Larunbatean, Hodeiertz Abesbatzak Burgosko XI. Antonio Jose abesbatza lehiaketan parte hartuko du.

Burgosko Cordon Etxean izango da saioa, eta Hodeiertzekin batera, Irungo Ametsa Gazte, Hondarribiko Eskifaia, Bartzelonako Cor de Cambra Anton Bruckner, Burgos-Soriako Coral comarcal de Pinares, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko abesbatza eta Guadalajarako Kromatica Ahots taldea ariko dira.

Antonio Joseren *Moliner*o, Broder-en *Son Mercedes* eta Yagüeren *Barber Gaztia* eskainiko dituzte, besteak beste, tolosarrek.

→ **Laburrak**

Nafarroa Oinezera joateko autobusetako zerrendak

EUSKARA › Datorren urriaren 21ean Zizur Txikin ospatuko duten Nafarroa Oinez festara joateko autobusak antolatatu ditu Galtzaundik. Goizeko 09:30ean irtengo dira Tolosatik, eta 19:00etan irtengo da autobusa Zizur Txikitik. Izena eman daiteke jada, Galtzaundiren egoitza. 12 euro ordaindu beharko da, eta bazkideek, berriz, 10 euro.

Tolosako XXV. Herri krosa izango da bihar

KIROLA › Tolosako San Esteban auzoko kultur astearen barruan, XXV. Tolosako Herri Krosa izango da, bihar, 11:00etan. Parte hartu nahi duenak izena eman ahal izango du irteeraren aurretik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →

Hamahiru buru, beste horrenbeste aburu

Hauteskunde aurreko kanpaina, ohikoak ez diren alderdiek ere euren mezuak zabaldu nahi dituzte

Asier Imaz

Tolosaldeko herritarrek hamahiru zerrenden artean aukeratu beharko dute urriaren 21ean. Alderdi edo koalizio politikoak, aldez, alderantzizko bidean daude, kanpaina zehar botoak bildu nahian. Horretarako euren mezuak lau haizetara zabaldu nahi dituzte, eta guztiak ez da erraza izaten hori.

Egun Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdietatik haratago, beste horrenbeste izen eta marka daude. Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskitzen zuzendaritzak, zerrendak kaleratzean, seigarren postuan Equo Berdeak-Euskal Ekologistak jarri du. Equo Europako Alderdi Berdearen ordezkaria da, Europarraren ordezkaria da. Besteak beste, mezu politikoen artean «demokrazia birsortzeko beharra» azpimarratzen dute.

ATTKA alderdia, bere aldetik, animalien tratua kezkatu aurkeztzen da hauteskunde hauek. Hauteskunde programan azaltzen dutenaren arabera, une honetan milioika animalia sufritzen edo modu gogorrean hiltzen ari dira. Honekin amaitu beharra dagoela aldarrikatzen dute, animalia guztienganako errespetua eskatzearekin batera.

Aulki Zuriak alderdiak, hauteskunde hauetan boto zuria ez



Tolosaldo Trianguloa plazan hautagaien propaganda ikus daiteke, bata bestearen ondoan, guztiak euren buruaren aldeko botoa eskatzen dute. A. IMAZ

emateko eskatzen du, alderantziz, hori egin beharrean, Aulki Zuriak bozkatzeko nahi dute. Alderdi desberdinekin bat egiten ez duten herritarrengana zuzentzen dira, eta legebiltzarkide bat lortuz gero, ondorengo aingoa luke: «Aulki zuriak uzteko prest gaudu. Lortu ahal izango genukeen edozein aulki hutsik uzteko eta egungo hauteskunde legeak aitortzen duen edozein ordainsari ekonomiko jasotzeari uko egiteko konpromisoa hartzen dugu».

Unificación Comunista de Es-

paña bere burua ideia zehatz batekin aurkeztzen du: «Espainiako gizartearen eraldaketa osoaren alde borrokatzen duen alderdi politikoa gara». Alderdi iraultzailea direla diote, eta Marx, Lenin eta Mao Tse-Tung aipatzen dituzte euren ekintza bidean. Espainiako langileria elkartu eta antolatze beharri erantzun nahi diote UCE alderdiekoek.

Bidezko Mundurantz alderdiaren helburua txirotasunarekin eta desberdintasunarekin amaitzea da, politika etiko eta giza es-

kubideen defentsatik, beti ere. Abaltzisketan boto bat jaso zutela gogoratzen dute euren webgunean, eta Anoetan, UPyDk baino emaitza hobek sortu dituztela aldarrikatzen dute.

Zerrendan azkena, Partido Humanista dago. Gizakiaren askatasuna eta indarkeri mota guztien amaiera aldarrikatzen dute PHkoek. Sufrimenduarekin amaitu beharra dagoela diote behin eta berriz, eta desobediendiaren aldeko hautua egiten dute, euren aldeko botoa eskatzen.

EH Bilduren eta EAJren arteko buruz burukoa urriaren 17an, 19:00etan

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak PP, PSE-EE, EAJ eta EH Bildu elkarriketatuko ditu

↓ Tolosaldeko herritarren aukera (Zerrenda bakoitzeko lehen hiru hautagaiak)

ALDERDI POPULARRA (PP)

1. Arantza Quiroga Cía.
2. Borja Semper Pascual.
3. Manuel Michelena Iguaran.

ANIMALIEKIKO TRATU TXARREN KONTRAKO ALDERDI ANIMALISTA (ATTKA)

1. Olatz Madrazo Rada.
2. Oihana Lertxundi Egurbide.
3. Angeles Zomeño Sanchez.

AULKI ZURIAK (AZ)

1. Felipe Benicio Retamal Vazquez.
2. Araceli Hermosa Crespo.
3. Ekaitz Diaz Ruiz.

BIDEZKO MUNDURANTZ (PUM+J)

1. Txaro Perez del Pecho.
2. David Martin Sanchez.
3. Nerea Lopez Ben.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA (EAJ)

1. Joseba Egibar Artola.
2. **Bakartxo Tejeria Otermin.**
3. Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola.

EQUO BERDEAK-EUSKAL EKOLOGISTAK (EQUO)

1. Monica Monteagudo Casas.
2. Xabier Iglesias Juarez.
3. Maria del Pilar Garcia Rivas.

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

1. Xabier Isasi Balanzategi.
2. Pello Urizar Karetxe.
3. Marian Beitialarrangoitia Lizarralde.

IZQUIERDA UNIDAEZKER ANITZA (IU-LV)

1. Jon Hernandez Hidalgo.
2. Maria Aranzazu Gonzalez Garcia.
3. Juan Luis Merino Sanabria.

EZKER BATUA-BERDEAK (EB-B)

1. Alba Gutierrez Gomez.
2. Isabel Lopez Aulestia.
3. Jose Maria Garcia Garcia.

PARTIDO HUMANISTA

1. Joaquin Salvador Rodriguez.
2. Pilar Fernandez Arau.
3. Nagore Alonso Bilbao.

PSE-EE

1. Iñaki Arriola Lopez.
2. Susana Corcuera Leunda.
3. Maria Blanca Roncal Azanza.

UCE

1. Juan Salvador Castañeda.
2. Sergio Larredonda Gonzalez.
3. Jorge Garcia Alegria.


UPYD

1. Nicolas de Miguel Velez.
2. Maria Inmaculada de la Riva.
3. Patricia Alcalá Marin.

A. Imaz

Galtzaundik, 28 Kanalak, Txolarrrek eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak mahai inguru antolatuko dute urriaren 17rako Tolosaldo udaletxe bati buruz burukoa 19:00etan hasiko da, eta mahaiaren inguruan Marian Beitialarrangoitia (EH Bildu) eta Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ) eseriko dira. Ateak zabalik izango dira, nahi duenak mahai inguru bertatik bertara jarrai dezan.

Bestalde, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak PP, PSE-EE, EAJ eta EH Bilduko eskualdeko ordezkariek elkarriketatuko dituzte. Elkarriketak urriaren 16tik 19ra argitaratuko dira, egunero bat, eta orain lau urte lortutako bozka kopuruaren arabera kurrenkeria jarraituko dute.



Jose Enrike Zeberioek Alegiako erretiratuen tabernan ikusgai jarri dituen margolanetako batzuk.

GAZTAREN MAMIA
idinezabal

XXIX EUSKAL HERRIKO ARTZAI GAZTA

herbilde zaituz!

Emozioak akuarela bidez

Jose Enrike Zeberio tolosarraren margolanak ikusi daitezke Alegiako erretirodunen tabernan

Imanol Garcia Landa Alegia

Txikitatik hasi zen Jose Enrike Zeberio tolosarra margotzen. Bederatzi urterekin marrakzi ikasketak jasotzen eta Tolo-sako kultur etxean hainbat urtetan izan da pintura ikastaroetan. Bere lanak ere hainbatetan erakutsi ditu eta orain, hilabete honetan, Alegiako erretirodunen tabernan daude ikusgai.

Akuarela naturala eta likidoa erabili ditu margolanak egiteko. Bere ohiko gaiak irudikatu ditu

erakusketako margolanetan: eskualdeko zenbait eraikin eta monumentu, basoa, itsasoa... eta lan abstraktu bat ere bai. «Batez ere naturan eta inguratzen nauten paisaietatik jasotzen dut inspirazioa margotzeko», dio Zeberioek. Besteak beste, Alegiako zubi zaharren lan bat dago.

Ez da lehenengo aldia taberna batean erakusketa bat jartzeko duena. «Gehienetan margolanak tabernetan erakutsi izan ditut», azaldu du Zeberioek. «Leku egokia iruditzen zait jendeak nire lana ezagutu eta jakinmina izateko. Erakusketa kultur etxe batean denean ezberdina da. Dena isiltasunean dago, jendea erakusketa ikustera bakarrik joaten da». Hain justu, Tolosako K2 tabernan erakusketa egin ondoren jaso zuen gonbita Alegiako erretiro-

dunen tabernan bere lanak erakusteko.

Margotzeak «asko asebetetzen nau» dio Zeberiori: «Nire emozioak adierazteko modua da. Koloreak erabiltzen ditut poza edo tristura azaltzeko. Gainera, jendeak nire obrak ikusten dituenean eta

Zeberioek ohiko gaiak irudikatu ditu lanetan: monumentuak, eraikinak, basoa...

egiten dudana gustatzen zaienean, asebetetzea oraindik handiago da».

Erretirodunen tabernan ikusi daitezkeen lanak erosgai daude, eta bertan jarrita dago lan bakoitzaren prezioa eta Zeberioekin harremanetan jartzeko aukerak.



Ahoa bete hots jardunaldien aurkezpen ekitaldia atzo egin zuten Villabonako Mintzola Fundazioaren egoitzan. A. IMAZ

III. Ahoa Bete Hots jardunaldietan ahozko sorkuntza aztertuko dute

Izena emateko epea gaur zabalduko dute, eta urriaren 24ra bitarte egingo da aukera

Asier Imaz Villabona

Villabonako Mintzola Fundazioan III. Ahoa Bete Hots jardunaldiak aurkeztu zituzten atzo. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara zuzendariak, Zigor Etxeburuak, hirugarren edizioaren nondik norakoak azaldu zituen, Josune Zabala Mintzola Fundazioaren zuzendariaren eta Beñat Gaztelumendi Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Hauekin batera, nahiz eta atzoko agerraldian egoteko aukerarik ez zuten izan, Euskal Kantuzaleen Elkarteak, Ipuin Kontalari taldea eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak aritu dira antolatzaile lanetan.

Zigor Etxeburuak hartu zuen mamia aurkezteko ardura, eta jardunaldien izena *Euskalkiak, batua eta erregistroa ahozko kultur sorkuntzan* izango dela azaldu

↓ Egitaraua

AZAROAK 7, ASTEAZKENA

- **09:00-09:15.** Sarrera.
- **09:15-10:00.** Manex Fuchs-en eskutik, *Euskara batua eta euskalkiak antzerkian; Ipar Euskal Herriko talaiatik.*
- **10:00-10:45.** Ainara Gurrutxagaren eskutik, *Euskalkiak traba edo aldeko dira antzerkian?*
- **10:45-11:30.** Itziar Ituñoren eskutik, *Antzezlea gidoiaren hizkuntza egokitzen duelarik bere egin arte.*
- **11:45-13:00.** Juglarea, *puta eta eroa* antzezlan, Petit Theatre de Pain konpainiarekin.
- **13:00-14:00.** Manex Fuchs, Ainara Gurrutxaga, Itziar Ituño eta Ximun Fuchsanex-en arteko mahai ingurua. Moderatzailea, Julia Marin.

zuen. Josune Zabalak aurreko bi edizioak gogoratu zituen, eta iazkoak biltzen zituen liburua jada salgai dagoela esan zuen.

Ahoa Bete Hots jardunaldietan parte hartzeko, izena www.mintzola.com

AZAROAK 8, OSTEGUNA

- **09:00-09:15.** Jardunaldien bigarren egunaren sarrera.
- **09:15-10:00.** Xabier Amuriza-ren eskutik, *Euskara batuaren eta euskalkien lekua bertsolaritzan.*
- **10:15-11:15.** Andoni Egañaren eskutik, *Erregistroaren bila bertsotan.*
- **11:45-12:45.** Mikel Markezen kantaldi-hitzaldia.
- **12:45-14:00.** Xabier Amuriza, Andoni Egaña eta Mikel Markezen arteko mahai ingurua. Moderatzailea, Beñat Gaztelumendi.

AZAROAK 9, OSTIRALA

- **09:00-09:15.** Jardunaldien azken eguneko sarrera.

webgunean edo 943 69 28 70 telefonoan eman behar da. Matrikula arrunta 60 eurokoa da. Antolatzaile elkarteetako bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte, Aiztondoko biztanleek be-

- **09:15-10:15.** Pello Añorga ipuin kontalaria, idazlea eta HUHEZIn irakaslearen eskutik, *Kontalarien jarrera eta hizkuntz egokitzapena haurrei kontatzerakoan.*
- **10:15-11:15.** Joxe Mari Karrera ipuin kontalariaren eskutik, *Hizkuntza egokitasunaz eta zuzentasunaz ipuin kontaketa.*
- **11:15-11:45.** Atsedena dia hartuko dute.
- **11:45-12:45.** Koldo Arnestoik ipuin kontaketa egingo du: *Harrion marriola.*
- **12:45-13:45.** Pello Añorga, Joxe Mari Karrera eta Koldo Arnestoien arteko mahai ingurua. Moderatzailea: Josune Zabala, Mintzola Fundazioaren zuzendaria.
- **13:45-14:00.** Jardunaldien amaiera.

zala. Ikasle, langabetu eta erretiratuaren matrikula prezioa 35 eurokoa da. Izena emateko aukera gaur zabalduko dute, urriaren 24an ixteko. Informazio gehiagorako Mintzolaria joan behar da.

Eskualdeko lau jatetxek eta bulego batek dute Q ziurtagiria

Kalitatearen ziurtagiria banatzerako garaian, besteak beste, bezeroei eskaintzen zaien arreta hartzen dute kontuan

Erredakzioa

Tolosaldeko lau jatetxek eta turismo bulegoak kalitate turistikoaren Q ziurtagiria lortu dute. Honen ondorioz, www.calidadturistica.es webgunean euren izenak zintzilikatu dituzte. Eskualdeko sarituak ondorengoak dira: Asteasuko Iturri-Ondo jatetxea; Bidegoiango Iriarte Jauregia Hotela; Zizurkilgo Olientzo Jatetxea; Tolosaldeko Zuloaga Txiki Jatetxea eta Tolosaldea Tour turismo bulegoa.

Kalitatearen Q ziurtagiria Espainiako Kalitate Turistikoaren Erakundeak sortu zuen, eta AENOR erakundeak onartutako kalitate arauetan oinarritzen da. AENORek aitortpena egiten die bezeroak gustura izateko eta etengabe hobetzeko zerbitzuak kalitate onean eskaintzen dituzten erakunde turistikoak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 267 establezimenduk lortu dute ziurtagiria, estatu mailako bigarren komunitatea izanik.

Q ziurtagiria lortzeko urratsak
Turismoaren arloan lan egiten duten eskualdeko establezimenduek ziurtagiria lortu nahi izanez gero, Euskalit-ekin jarri behar dute harremanetan, nfernandez@euskalit.net helbide elektronikora idatzita. Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioa da, eta euren esanetan, Q ziurtagiria lortzeko laguntza eskaintzen dute: «Zure establezimenduko barne-kudeaketa hobetu eta etengabeko hobekuntza bultzatu nahi baduzu, gurekin harremanetan jarri eta informatuko zaitugu», esan du Natalia Fernandez Bikaintasunerako Euskal Fundazioko kideak.

inBEG independentzia

Urriak 13, 17:30ean BARAKALDON EKITALDI NAZIONALA

BOZKATU **ehbildu**



Ertzaintza gorpuaren ondoan, Alegiako geltokian, atzo. ir.

Gizonezko bat hil da, trenak harrapatuta

Alegiako tren geltokian gertatu da istripua; tren zerbitzua etenda egon zen ordubetez, Irunerako noranzkoan

diriko tren, eta Alegian geratzera zahoanean harrapatu zuen gizonezkoa.

Larrialdi zerbitzuek ezin izan zuten ezer egin, istripua gertatutako lekura iristerako gizonezkoa hilik baitzegoen. Ertzaintza eta Alegiako Udaleko ordezkariak ere bertaratu ziren tren geltokira.

Donostiarako noranzkoan tren zerbitzua etenda egon zen ordubate inguruan. Zumarragarako noranzkoan, berriz, normaltasunez jarraitu zuen zerbitzuak.

• alegi@hitza.info

I. Terradillos Alegia

Gizonezko bat hil zen atzo arratsaldean Alegian, trenak harrapatuta. 14:20ean gertatu zen ezberria, Alegiako tren geltokian. Irunerako noranzkoan zahoan al-

Berdintasunaren inguruko kafe tertulia Bidegoian eta Albizturren

I. Terradillos Albiztur-Bidegoian

Albizturren burutzen ari diren Berdintasun planaren barruan, bi ekitaldi izango dituzte datorren astean. Bata, helduei zuzendurikoa izango da, datorren asteazkenean, 15:00etan. Berdintasunaren inguruko kafe tertulia egingo dute Ana Elozegi psikologoak lagunduta.

Bigarrena, gazteei zuzendurikoa izango da, ostiralean, 18:00etan hasita. *Sexualitatea eta Internet. Gidaliburua aukerak sortzeko eta arazoak saihesteko* gaia landuko dute, Maider Altuna, psikologoarekin. Bi ekitaldiak udaletxean izango dira.

Bestalde, Bidegoian ere helduei zuzenduriko kafe tertulia egingo dute gaur, 14:30ean hasita, erabilera anitzeko gelan.

Berastegiko X. Argazki Rallya hasiko da gaur

Igandera bitarte atera ahalko dituzte argazkiak parte hartzaileek; azoka egunean esango dituzte irabazlearen izenak

Iñigo Terradillos Berastegi

Berastegiko kaleetan eta inguruetan argazki kamera eskuetan hartuta irudi edo une onenaren bila ariko dira herritar ugari datorren egunetan. Udaleko kultura batzordeak bultzatuta, aurten ere herritarren arteko Argazki Rallya egingo dute. Hamargarren urtez antolatuta duten ekimenari gaur emango diote hasiera, eta igandera bitarte izango dute parte hartzaileek argazkiak ateratzeko aukera.

Lehiaketan parte hartu nahi duten argazkilariek Berastegiko

udaletxera joan beharko du gaur, 20:00etan. Orduan esango zaie aurtengo gaia zein den, eta une horretan emango zaio hasiera rallyari.

Aurreko urteetan bezala, argazki kamera analogikoarekin zein digitalarekin parte hartu ahalko da. Analogikoarekin parte hartzen dutenentzat karrete bana banatuko zaie udaletxean, bakoitza 12 argazki osatua. Parte hartzaileek egin dituzten argazki guztietatik 3 aukeratu beharko dituzte, eta igandean, urriaren 14an jakinaraziko zaie noiz egin beharko duten aukeraketa.

Argazki kamera digitalarekin argazkiak aterako dituzten parte hartzaileei, berriz, CD bat banatuko zaie. 15 argazki sartu beharko dituzte bertan, eta horietatik 3 aukeratu dituzte txapelketarako.

Irabazleak, azoka egunean

Berastegiko mugen barruan atera beharko dituzte argazkiak parte hartzaileek. Igandea 20:00ak bitarte izango dute argazkiak egiteko aukera.

Txapelketarako aukeratu dituzten argazkien artean hoberenak aukeratu dituzte epaimahaiak, eta horiek sarituak izango dira. Irabazlearen izenak azaroaren 4an, Berastegiko Azoka Berezia egingo den egunean ezagutzaraziko dituzte. Irabazleen argazkiak zein diren jakin aurretik, txapelketara aurkeztutako argazkiak ikusteko aukera izango du edonork, kultur asteanen barruan apartakelu azpiko lokalean jarriko baitituzte ikusgai.

Bada, argazkilaritza gustuko duen orok hitzordu polita du gaurtik igandera bitarte Berastegin. Udalak herritar guztiei luzatu die parte hartzeko gonbita.



Pasa den urteko Berastegiko Argazki Rallyan parte hartu zuen argazkietako bat. HITZA

Azoka eguneko lehiaketetako izen ematea laster zabalduko dute

Azaroaren 4an izango da azoka, eta bost lehiaketa izango dira; hilaren 22tik 31ra eman beharko da izena

I. Terradillos Berastegi

Urriko azken astean kultur astea izango da Berastegin hamaika ekitaldirekin, eta horien artean handiena azaroaren 4an izango

den Azoka Eguna. Animaliak, jakiak, artisautza... denetarik izango da. Baita lehiaketak ere, bost lehiaketa, hain zuzen: XXI. Gazta Txapelketa, XIV. Postu Lehiaketa, X. Ardi, Ahari eta Bildots Lehiaketa, VI. Animalia Erakusketa eta IV. Arroz-esne Lehiaketa. Parte hartzaileek herritarrek beharko dute izan.

Lehiaketa hauetakoren batean parte hartzeko urriaren 22tik urriaren 31ra bitarte eman beharko da izena. Udaletxean bertan,

udaletxera deituta, 943 68 30 00 zenbakira, edo kultura@berastegi.com helbidera idatzita egin beharko da. Informazio gehiago nahi izanez gero udaletxeko zenbakira deitu ahalko da.

Lehiaketa horiez gain, azoka egunean argazki lehiaketako eta baratze lehiaketako sari banaketak ere egingo dira.

Berastegiko Udalak herritar guztiak animatu ditu lehiaketetan parte hartzera.

• ibarraldea@hitza.info

Donostia aldeko logistika enpresa batek KOMERTZIALA behar du,
Cipuzkoa eta inguruko herrialdeetan
lan komertziala egiteko.

Ekartzen dira:

- Gertaerak logistika eta enpresa baten espazioan zehar
- Komertzial baten espezialista izatea
- Herrialde desberdinetan enpresa baten lan egitea
- Gudeleku berrak eta auto eduzkizak

Bidali curriculuma gizabaliabideak@bidera.eu helbidera,
KOM-ET-2012 erreferentzia jarrita.

Nazioarteko Ikasle Borroka Eguna dela eta, greba orokorra deitu dute

Gaur, 19:00etan elkarretaratzea egingo dute hainbat ekimenen artean; bihar, herri eskolak izango dira

Enertiz Maiz

Tolosaldeko Ikasle Abertzaleako kideek gaurko greba orokorra deitu dute, *Hezkuntza herriatik herriarentzat, erreformei ez!* lelopean. Nazioarteko Ikasle Borroka eguna da, eta egunean zehar hainbat ekimen egin ostean, 19:00etan elkarretaratzea egingo dute, Tolosako Trianguloa plazan.

«Europako Banku Zentral eta PPKo erreforma basatiei ez», esan nahi dietela adierazi dute. Espainiako hainbat naziotako ikasle mugimenduek manifestua egin dute, eta Mariano Raxoiren erreformei, eta bereziki, Wert hezkuntza ministroaren murrizketei «ezezko borobilena» azaldu nahi dietela adierazi dute Tolosaldeko ikasle abertzaleek. «Hauek, nazio zapalduon subiranotasuna eta independentzia urratzen dute Europar Batasunetik eta kapital basatien erreformen aurrean babesgabe uzten gaituzte», gaineratu dute.

Nazioen kultura eta hizkuntzen egoera ankerra nahikoa ez, eta orain hezkuntzako aurrekontuak ere murriztu nahi dituztela nabarmendu dute: «Krisi instituzionalarekin ez dute estatu barneko nazioak uniformatzeko astirik galdu, nazioak desagerrarazteko helburu hutsarekin».

Bitartean, ikasgeletako ikasle kopurua handitzeko eta irakasleen eskola orduak gehitzeko erreparrorik ez dutela izan adierazi dute. «Edozeinek ikus ditzake zapalketa hauek. Adibidez, Tolosako Laskorain ikastola egoera ho-



luz, Tolosaldea Institutuan herri eskolak egin zituzten. HITZA

↓ Nazioarteko Ikasle Borroka Eguna

URRIAK 11, GAUR

- **Greba deialdia.** Tolosaldeko hainbat ikastetxetan grebak deitu dituzte, eta hainbat ekimen egongo dira egunean zehar.
- **19:00.** Elkarretaratzea egingo dute Tolosako Trianguloa plazan.

nen adibide garbia da. Hezkuntzan egindako murrizketen ondorioz 37 ikasle daude gela batean, honek dakartzan arazo guztiekin», nabarmendu dute.

Bide honetan, alternatiba bakarra «eskola herritar, laiko, antipatriarkal, duin eta nazio bakoitzaren hizkuntza zein kultur eskubide osoak errespetatuko dituen» bultzatzea da. Honetarako, «ikasleria osoari gurekin batera bidea egin dezan» gonbitea luzatu diete. «Etorkizuna eraikei dezagun, gure orainaren jabe garelako. Borroka garaia da. Ikasle, borrokaz lortuko dugu!», diote ikasleek.

URRIAK 12, BIHAR

- **Herri eskolak.** Egunaren sarrera, hezkuntza alternatibak, hamaiketakoak, Zukgua (gazte prozesuaren aurkezpena) eta irailak 25-29, Espainian erreformenten aurka burututako ekimenak jorratuko dituzte, Laskorain ikastolan.

Era berean, Tolosaldeko ikasle abertzaleek biharko Hispanitatearen Eguna ez dutela ospatuko azaldu dute. Hori dela eta, herri eskolak burutuko dituzte Laskorain ikastolan. Tolosaldeko gazte guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.

Egunaren sarrera egin ostean, hezkuntzaren alternatibak jorratuko dituzte. Hamaiketakoak egiteko tartea hartu eta gero, Zukgua, hau da, gazte prozesuaren aurkezpena egingo dute.

Ondoren, irailak 25-29, Espainian erreformenten aurka burututako ekimenak izango dituzte hizketagai.

Amezketako gazteek euren txokoa izango dute

Gaztelekua prestatu dute 12 eta 17 urte artekoentzat; larunbatean inauguratuko dute

Rebeka Calvo Amezketak

Amezketako 12 eta 17 urte arteko neska-mutilek euren arteko harremana sustatzeko tokia izango dute aurrerantzean. Izan ere, Gaztelekua egin dute, eta larunbatean, hilak 13, inauguratuko dute, 16:30ean.

Alazne Mantxolak, Amezketako dinamizatzaileak, azaldu duenez, gazteek lan asko egin dute azken hilabete hauetan guztia prest

edukitzeko eta «prozesu parte hartzailean aktiboki parte hartu dutelako eta beraien lanari esker, hau martxan jarri ahal izan dugulako» eskerrak eman nahi izan die. Gaztelekua, asteke 5 egunetan irekiko dute; astelehena, asteazkena, ostirala, larunbata eta igandea. 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, larunbatean izan ezik, egun horretan 16:30etik 20:30era irekiko baitute.

Zerbitzuaren xedea Amezketako 12 eta 17 urte arteko gazteen parte hartzea sustatzea dela nabarmendu du Mantxolak, eta baita «beraiek intereseko gaiak, nahiak... aurrera eramateko aukera izatea, herrian beraiei zuzendutako zerbitzu bat izatearekin batera».

Abesbatza Lehiaketako sarrerak, urriaren 14tik aurrera

R.C. Tolosa

Igandetik, urriaren 14tik, aurrera erosi ahal izango dira Tolosako Abesbatza Lehiaketako sarrerak. Bonuak erosteko aukera, aldiz, atzo amaitu zen.

Helduen sarrerak 12 euro balio du eta haurrena 5. Helduen amaierako sarrerak berriz, 16 euro balio du, eta haurren amaierako sarrerak, 9 euro.

Sarrerak Servikutxa bidez erosi daitezke (943 00 12 00 edo www.kutxa.net), Tolosako Ekinbide Etxean (943 65 04 14) edo Leidor aretoko leihatilan urriaren 20an eta 21ean edo emanaldien aurretik, 16:00etatik 19:00etara.

Pilota partida ugari izango dira Alegian, ostiral eta larunbatean

R.C.

Pilota partida ugari ikusteko aukera izango da ostiralean eta larunbatean Alegiako pilotalekuan.

Ostiralean 10:30etik aurrera kadeteen Intxurre2-Allerru, kadeteen Intxurre 1-Eskoriatza, eta jubenilen Intxurre-Gailurrerantz ariko dira.

Larunbatean 16:00etik aurrera, aldiz, talde hauek lehiatuko dira Alegian: Intxurre2-Aurrera Saiaz 1, Intxurre 1- Atxurbide 3, Intxurre 3-Intxurre 4, eta Intxurre 2-Intxurre 5. Larunbateko partida guztiak infantilen artekoak izango dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	16°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Irudia Larraul



EGOITZ LASAREKIN AMETSETAN

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu, Egoitz Lasa izan zen atzo, Larraulgo liburutegian. Ipuin kontalariak txundituta utzi zituen herri-

ko haur guztiak, aho zabalik. Hainbat idazleren lanak hartu zituen ardatz ipuin kontalariak, eta kontakizun bizia eskaini zien bertaratutakoiei. E.MAIZ

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairtzien erantzukizunik.

Agurrak



Ongi etorri!
Jaio da Oihan!
Zorionak gurasoei!!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosa Kantariko entsegu gaur, 20:00etan, musika eskolan, urriko azken larunbateko Kantu Jira prestatzeko.
- **Bidegoian.** Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren kafe tertulia, gaur, 14:30ean, erabilera anitzeko gelan.
- **Anoeta.** Qi-Gong ikastaroa martxan jarriko du urritik abendura, udalak. Oraindik tokia geroz da, eta interesatuek udal-letxean edo liburategian izena eman dezakete urriaren 17a bitarte. Irakaslea Jone Arrospide izango da, eta menopausiaren bueltan dabilzan emakumeentzako da. Klaseak egun hauetan izango dira: urriak 18, azarok 8 eta 22, abenduak 13 eta 20 (edo 27), 18:30etik 20:30era. Mikelasagasti auditorioan izango dira, 45 euroren truke.
- **Zizurkil.** Igandeko Azoka Berreko bazkarirako txartelak erosi daitezke jada, Egarrri eta Atxulondo tabernetan, 18 euroren truke.
- **Alegialdea-Tolosa.** Nafarroa Oinez hilaren 21ean izango da, Zizur Txikian, eta autobusa antolatuta dute Alegialdetik eta Tolosatik. Alegialdian geldialdiak

Amezketan, Alegian eta Ikaztegi-tan izango dira. Izena Abaltzisketa, Altzo, Alegia, Amezketa, Orendain, Baliarrain eta Ikaztegi-tako udaletxeetan eman daiteke. Hilaren 18a da azken eguna, 12:00ak arte. Helduek 10 euro, eta ikasleek eta langabetuek 7 euro ordaindu behar dute. Tolosan aldiz, Galtzaundik antolatuta du autobusa. Izena Galtzaundiren egoitzan eman behar da, eta bazkideek 12 euro ordaindu beharko dute, eta besteek, 10.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box. A elkartearen *Pornografia* eta Tolosa Gasak eta Tolargik 2013ko egutegia egiteko erabiliko dituzten argazkien bilduma ikusi daitezke, Aranburu jauregian.
- **Alegia.** Jose Enrike Zeberioeren margolanak ikusi daitezke hila-bete bukaerara arte, Jubilatuen tabernan.

ZINEMA

- **Tolosa.** Zine forumaren barruan, gaur, 19:15ean eta 21:45ean *Amor bajo el espino blanco* jatorrizko bertsoan.



Mauka berria

Laster...

planik onenak egunero, bertatik bertara!

Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura, kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika... merke-merke eta eskura



Abantailak izena ematen duten lehenengoztat

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

Erroki bidaiak agentziaren eskutik

EROSKI bidaiak

merkeki doan



www.mauka.eu

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria. Harlauzi Hitzegi Enziklopedikoa

berria
Taldea